

## 5. ORDENANTZA FISKALA

### HIRI LURREN BALIO GEHITZEAREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

#### AURKIBIDEA:

	<b>Orriak</b>
<b>I. Xedapen Orokorrak</b> 1 eta 2 artikulua	2
<b>II. Zerga Egitatea</b> 3 artikulua	2
<b>III. Zergaperik Eza</b> 4 artikulua	2 - 3
<b>IV. Salbuespenak eta Hobariak</b> 5 eta 6 artikulua	3 - 5
<b>V. Subjektu Pasiboak</b> 7 artikulua	5
<b>VI. Zerga Oinarria</b> 8tik 10era artikulua	5 - 7
<b>VII. Zerga Kuota</b> 11 artikulua	7
<b>VIII. Zergaren Sortzapena. Noiz eta Zergatik sortzen den</b> 12 artikulua	7 - 9
<b>IX. Kudeaketa</b> 13tik 19ra artikulua	9 - 11
<b>X. Xedapen Gehigarria</b>	11
<b>XI. Xedapen Iragankorra</b>	12
<b>XII. Azken Xedapena</b>	12

#### 5. ZERGA ORDENANTZA

Azken aldaketa Udalbatzak 2016/10/27 eguneko osoko bikura erabakiz

Hasierako onarpenaren argitalpena ALHAOn: 2016/11/04 eguneko 123 zk.an

Azken aldaketa, behin betiko onartura: 2016/12/21

Behin betiko onarpenaren argitalpena ALHAOn: 2016/12/28 eguneko 146 zk.an

Indarrean sartu: 2017/01/01

## **5. ORDENANTZA FISKALA**

# **HIRI LURREN BALIO GEHITZEAREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA**

### **I. XEDAPEN OROKORRAK**

#### ***1. Artikulua***

Laudio Herriko Etxeak honek, Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauan aurreikusitakoarekin bat eta uztailaren 19ko 46/1989 Foru Arauarekin bat, ebatzi du exijitzea Hiri Izaerako Higiezinaren Balio Gehitzearen gaineko Zerga, Ordenantza honetan xedatutakoaren arabera.

#### ***2. Artikulua***

Ordenantza hau Laudioko udal barruti osoan aplikatuko da.

### **II. ZERGA EGITATEA**

#### ***3. Artikulua***

Zerga honen zerga egitatea hiri lurrek zergaldian izan duten balio gehikuntza da, baldin eta lur horien jabetza edozein tituluren bidez eskualdatzen bada edo lur horiek edukitzeko jabariaren mugatzaile den edozein ondasun eskubide sortu edo eskualdatzen bada.

### **III. ZERGAPERIK EZA**

#### ***4. Artikulua***

1.- Ez da Zerga honen menpe egongo Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan landa lurreko ondasun higiezintzat hartuko diren landa lurrek izan dezaketen balio gehitzea.

2.- Ezkontideek ezkontzazko sozietateari egindako ondasun eta eskubideen ekarpen, esleipen eta egiaztatzen diren horien ordainketen eta ezkontideek euren ondasun komunen ordaintzeko transmisio kasuak ez dira Zerga honen objektu ezargarri izango.

Aurreko paragrafoan aipatutako kasu berdinetan, Eusko Legebiltzarreko maiatzaren 7ko 2/2003 Legean erabakitakoaren arabera eraturako izatezko bikotekideek egindako ekarpen, esleipen eta transmisioei neurri berdina ezarri eta aplikatuko zaie.

Halaber, ez dira Zergaren objektu izango ezkontideen artean, Eusko Legebiltzarreko maiatzaren 7ko 2/2003 Legean erabakitakoaren arabera eraturako izatezko bikotekideen artean, edo euren seme-alaben aldeko transmisio kasuetan, beti eta baliogabetze, bereizte edo ezkontzaren dibortzio, edo izatezko bikotea iraungitzeko epaiak betetzearen ondoriozko ondasun higiezinaren transmisio kasuak, zeinnahi dela ere ezkontzako ekonomia araubidea edo ondarearen ekonomia araubidea.

## **IV. SALBUESPENAK ETA HOBARIAK**

### **5. Artikulua**

1. Zerga hau ordaintzetik salbuetsita daude hurrengo egintzen ondorioz sortzen diren balio gehikuntzak:

- a) Edozein zortasun eskubideren eraketa eta eskualdaketa.
- b) Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauko 4. Artikuluko 1. Ataleko k) letran azalduta datorren salbuespena aplikagarria zaien ondasunen eskualdaketa eta besterentzeak, horien jabeak edo gauzen gaineko eskubide errealeen titularrek aipatu diren higiezin horietan kontserbazio, hobekuntza edo eraberritzeko lanak euren kargu burutu eta gauzatu dituztela egiaztatzen dutenean.

2. Balio gehikuntzak zerga hau ordaintzetik salbuetsita daude, zerga ordaintzeko betebeharra hurrengo pertsona edo erakundeei dagokienean:

- a) Estatua, Euskal Autonomia Erkidegoa, Arabako Foru Aldundua, Estatuko Erakunde Autonomoak eta baita Lurralde Administrazio horietako izaera bereko zuzenbide publikoaren arlokoak diren erakundeak ere.
- b) Zerga ezartzen den Udalerria eta gainerako udala sartuta dagoen edo udalean sar daitekeen gainerako Udal Erakundeak, hala nola Estatuko Erakunde Autonomoen pareko izaera bereko zuzenbide publikoaren arloko euri dagozkien erakundeak ere.
- c) Ongile edo ongile-irakaskuntzarako kalifikazioa duten erakundeak.
- d) Gizarte Segurantzak kudeatzen duten erakundeak eta indarrean dagoen legeriak ezarritakoaren arabera osatu diren mutualitate eta montepioak.

- e) Bueltatu beharreko emakida administratiboen titularrak emakida horiei loturiko lurrekiko.
- f) Gurutze Gorriarenak eta araudian zehazten diren beste Erakunde parekagarrienak.
- g) Nazioarteko itun edo hitzarmenak direla bide zerga ordaintzetik salbuetsita dauden subjektu pasiboak.

3. Zerga honetatik salbuetsita egongo dira pertsona fisikoek hipotekaren ordain gisa zordunaren edo haren bermatzailearen ohiko etxebizitza ordainean emateko, kreditu entitateekin edo maileguak edo hipoteka-kredituak modu profesionalean ematen dituen beste erakunde batekin hartutako etxebizitzaren gainean eraturako hipoteka bidez bermatu diren zorrak kitatzeko egiten diren eskualdatzeak.

Idatzi-zati honen ondoreetarako, hipoteka-zordunaren edo haren bermatzailearen ohiko etxebizitza ordainean ematea zordunaren ohiko etxebizitza erosteko zorrak bermatzeko abalista izatera izanda egiten den kasuetan ere aurrekoa aplikatuko da.

Halaber, salbuetsita egongo dira aurreko baldintzak betetzen dituzten eta hipoteka-exekuzio judizialetan edo notarialetan egiten diren etxebizitza-eskualdatzeak.

Salbuespen-eskubidea izateko baldintza da, etxebizitza besterentzea eragotzi daitekeen unean zordun eskualdatzaileak, haren bermatzaileak edo familia-unitateko beste edozein kidek ez edukitzea hipoteka-zor osoa kitatu ahal izateko nahikoa den beste ondasunik edo eskubiderik. Horrelakoetan, betekizuna betetzat joko da. Hala ere, geroago kontrakoa egiaztatzen bada, dagokion zerga-likidazioa igorriko da.

Idatzi-zati honetan aurreikusitako ondoreetarako, ohiko etxebizitza gisa hartuko da hala definituta datorrena Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 29ko 3/2008 Foru Arauaren 87 artikuluko 8. idatzi-zatian.

Familia-unitatearen kontzeptuari dagokionez, Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 98. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da. Horri dagokionez, berdin tratatuko dira bikote ezkonduak eta Eusko Legebiltzarrak maiatzaren 7an emandako 2/2003 Legean xedatutakoarekin bat eratu diren izatezko bikoteak.

## **6. Artikulua**

Zerga honen kuota osoaren % 50 hobaria egitea erabaki da, ondorengoan eta adoptatuen, ezkontideen alde, edo izatezko bikotekideen alde, Eusko Legebiltzarreko maiatzaren 7ko 2/2003 Legean erabakitakoaren arabera eraturako bikoteen kasuan, irabazpide titulu bidez heriotza kausa higiezinaren transmisioetan eta gozatu eta probetxua izateko jabaria mugatzen duten gauzen gaineko eskubideen transmisioan edo eraketan.

## V. SUBJEKTU PASIBOAK

### 7. Artikulua

1.- Zerga honen subjektu pasiboa zergadun kontzeptuan eta tituluan honako hauxe da:

a) Lurzoruen eskualdatzeetan edo onurazko tituludun jabetza murrizten duten gozameneko gauzen gaineko eskubideak eratu edo eskualdatzeko, Foru Arau Orokorreko 35. artikuluko 3. idatzi-zatiak aipatutako gauza-eskubide erreala den hori eratu, eskualdatu duen edo lurzorua erosi duene pertsona fisikoak, juridikoak edo erakundeak.

b) Lurzoruen edo onurazko tituludun jabetza murrizten duten gozamen gauzen gaineko eskubideak errealak eratu edo eskualdatzeko, Foru Arau Orokorreko 35. artikuluko 3. idatzi-zitiak aipatutako dena delako gauza-eskubide erreala den hori eratzten den edo eskualdatzen deneko edo lurzorua erosi dueneko pertsona fisikoa, juridikoa edo erakundeak.

2.- Aurreko idatzi-zatiko b) hizki zatian aipatutako kasuetan, subjektu pasiboaren kontsiderazioa izango du zergadunaren ordezkioak, Foru Arau Orokorreko 35. artikuluko 3. idatzi-zatiak aipatu dituen lurzorua erosi duen pertsona fisikoak, juridikoak edo erakundeak, edo dagokion gauza-eskubide erreala eratu edo eskualdatu duena bere alde, zergapeko Espainian egoiliarra ez den pertsona fisikoa ez denean.

## VI. ZERGA OINARRIA

### 8. Artikulua

Zerga honen zerga oinarria hiri lurren balioa gehitzea izango da, gehikuntza hori sortzapenaren unean azalerazi eta aditzera emango da eta, gehienez ere, 20 urteko epean zehar izandako igoeraz probatuko da.

Zerga oinarria zehazteko, kontuan hartu beharko da lurrak duen balioa sortzapenaren unean, 9. Artikuluan eta 11. Artikuluan dagoen eskalako portzentajea aurreikusitakoan oinarria hartuta eta horren arabera.

### 9. Artikulua

Sortzapenaren momentu unean lurrak duen balioa ondorengo arauetan xedatutakoa ezartzearen ondoriozkoa izango da:

a) Lurren eskualdaketa egiten bada, zerga sortzen den unean, sortzapenaren unean, finkatuta duen balioa izango kontuan hartuko dena Ondasun Higiezin Zergaren ondoretarako.

Hala ere, babes publikoko etxebizitzaren araubidean atxikitako ondasunei dagozkien lurzoruen eta terrenoen balioa kalkulatu da lur horien salmenta-prezioari 0,2 koefizientea aplikatuz.

b) Jabariaren mugatzaile diren eduki ondasun eskubideen eraketan eta eskualdaketa, eranskinean adierazitako urteko portzentajeak, 10. Artikuluan xedatutako arauen aplikazioa egin ondoren, aurreko letran definitutako balio zatiaren gainean ezarriko da. Balio horrek aipatu diren eskubideen balioa adierazten du, hau da, Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren ondoretarako finkaturiko arauak ezarri kalkulatu diren eskubideen balioa.

c) Eraikin edo lur baten gainean solairu bat edo gehiago altxatzeko eskubidearen edo azalerako ondasun gabe lurpean eraikitzeko eskubidearen eraketan edo eskualdaketa, 11. Artikuluan ageri diren urteko portzentajeak, 10. Artikuluan erabakita utzi eta xedatutako arauak aplikatu ostean, aurreko a) letran zehazturiko balio zatiaren gainean ezarriko da. Balio horrek eskualdaketa eskrituran finkaturiko proportzionaltasun modulua adierazten du edo, horren ezean, hegalduran edo zorupean eraikiko diren solairuen azalera edo bolumenaren eta horiek eraiki ondoren eraikuntzak duen azalera edo bolumen osoaren arteko proportzioa.

d) Derrigorrezko desjabetzapena gertatzen denean, Artikuluan honetako eranskinean dauden urteko portzentajeak, 10. Artikuluan erabakitako arauak aplikatu eta gero, luraren balioari dagokion justiprezioaren balioespenaren zatiaren gainean, salbu eta lur horri esleitu zaion katastroko balioa txikiagoa denean; kasu horretan, azken balio hori nagusituko zaio balioespenari.

## **10. Artikulua**

1. Sortzapenaren unean lurak duen balioaren gainean aurreko 9. Artikuluan xedatutakoaren ondorioz, 11. Artikuluan ageri den eskalako portzentaia aplikatu da.

2. Artikulu honen bigarren zenbakiak aipatzen duen portzentajea zehazteko, arau hauek ezarriko dira:

Lehen.- Zergapeturiko eragiketa bakoitzaren balioaren gehikuntza Laudioko Udalak erabaki eta finkatutako urteroko portzentajearen arabera zehaztuko da, balio gehikuntza hori azaldu eta agertu den urteen zenbatekoa barne hartuko duela.

Bigarrena.- Sortzapenaren unean lurraren balioaren gainean ezarri behar den portzentajea kalkulatzeko, kasu bakoitzari ezar dakioken urteko portzentajea eta balio gehitzea azaldu den urteen zenbatekoa biderkatu behar dira.

Hirugarrena.- Lehen arauaren arabera eragiketa zehatz bakoitzari ezar dakioken urteko portzentajea zehazteko eta bigarren arauaren arabera urteko portzentajea zenbat urtez biderkatu behar den zehazteko, soilik balioaren gehikuntza azaldu den aldia osatzen duten urte osoak hartuko dira kontutan eta, beraz, aldi horretako urte zatiak ez dira kontutan hartuko.

## VII. ZERGA KUOTA

### *11. Artikulua*

1. Zergaren sortzapenaren unean lurra duen balioaren gainean ezarriko diren portzentajeak izan diren benetako balio gehikuntzak zehaztu eta kalkulatzeko honako hauek izango dira:

<u>ALDIA</u>	<u>URTEKO PORTZENTAJEA</u>
1etik 5 urtera arte	2,9
10 urtera arte	2,7
15 urtera arte	2,6
20 urtera arte	2,6

2. Zerga kuota izango da zerga-oinarriari zerga-tipoa aplikatzearen emaitza; zerga-tipo hori % 5 izango da.

## VIII. ZERGAREN SORTZAPENA. NOIZ ETA ZERGATIK SORTZEN DEN

### *12. Artikulua*

1. Zerga sortzen da hurrengo kasuetan:

a) Lurraren jabetza, kostu bidez edo dohainik, bizidunen artean edo heriotzgatik eskualdatzen denean, eskualdaketaren egunean.

b) Jabariaren mugatzaile den eduki ondasun eskubideren bat eratzen edo eskualdatzen denean, eraketa edo eskualdaketa gertatzen den egunean.

Aurrean xedatutakoaren ondoretarako, eskualdaketaren eguntzat hartuko da:

a) Bizidunen arteko egintza edo kontratuetan, agiri publikoa ematen den eguna; agiri pribatuen kasuan, agiri horiek erregistro publikoan sartu edo inskribatzen den eguna edo lanbideagatik funtzionario publiko bati ematen zaizkion eguna.

b) Heriotzagatik egiten diren eskualdaketetan, kausatzailearen heriotzaren eguna.

2. Lurraren eskualdaketa edo lur hori edukitzeko ondasun eskubidearen eraketa edo eskualdaketa zehaztu duen egintza edo kontratua deuseztatu, hutsaldu edo suntsiarazi dela judizio bidez edo administrazio bidez eta ebazpen finkoz, irmoz adierazi edo onartzen denean, ordaindu duen zerga berriz jasotzeko eskubidea izango du subjektu pasiboak, baldin eta egintza edo kontratu horrek irabazizko efekturik sortarazi ez badio eta diruaren itzulketa ebazpena irmo geratu denetik zenbatu beharreko bost urteko epean erreklamatzeko bada. Irabazizko efektua egon dela ulertuko da, interesatuek Kode Zibilaren 1295. artikulua aitutzen dituen elkarrekiko itzulketak egin behar dituztenik bidezkotzen ez denean. Egintza edo kontratuak irabazizko efekturik sortarazi ez bada ere, Zergaren subjektu pasiboak bere betebeharrak bete ez izanagatik hutsaltzea edo suntsiarazpena adierazten bada, ez da itzulketarik egingo.

3. Alderdi kontratatzaileen elkarren arteko adostasunez kontratua ondorerik gabe geratzen bada, ordaindu den zergaren itzulketa ez da bidezkoa izango eta zerga ordaintzera loturik dagoen egintza berriz hartuko da. Elkarren adostasunez egin denez, adiskidetzako ados jartzea eta eskariari amore ematea estimatuko dira.

4. Egintza edo kontratuetan baldintzaren bat badago, baldintza horren kalifikazioa Kode Zibileko preskripzioen arabera egingo da. Etendura sortzeko baldintza bada, etengarria, zerga ez da likidatuko, harik eta baldintza bete arte. Baldintza suntsiarazlea bada, zerga ordaintzea eskatuko da, baldintza betetzen denean aurreko paragrafoko arauaren arabera dagokion itzulketa egiteko.

Alkar-poderosoaren edo ahal ordenatzailearen esku jartzen diren jaraunspenetan, zerga sortuko da ahalaren erabilera osoa egin denean edo ahalmen hori iraungitzeko gainerako zergati eta kariatako bat gertatzen denean.

Alkar-poderosoan edo ahal ordenatzailean pertsona jakin bati zerga horri loturik dauden jaraunspeneko ondasunen gozamina edukitzeko eskubidea ematen bazaio, ahala erabiltzen ez den bitartean, gozamen horren likidazio bikoitza egingo da: bata, behin-behinekoa, eta sortzapena oinordetza irekitzen denean egingo da, biziarteko gozamenaren arauen arabera; eta bestea, behin-betikoa, alkar-poderosoan edo ahal ordenatzailean erabiltzen direnean, aldi baterako gozamenaren arauen arabera, kausatzailea hil denetik igaro den denboragatik. Eta kontura egin den diru sarreratzat hartuko da behin-behineko likidazioan ordaindutakoa eta gozamendunari diferentzia itzuliko zaio, likidazioa bere alde irteten bada. Aldi baterako gozamenagatik egiten den behin-betiko likidazio hori jaraunspenaren likidazioa egiten den aldi berean egin beharko da, alkar-poderosoaren edo ahal ordenatzailearen egikaritzagatik edo ahalaren iraungipenerako gainerako kariengatik deuseza denean salbu.



## **IX. KUDEAKETA**

### ***13. Artikulua***

Subjektu pasiboak beharturik daude zergaren aitorpen egokia Laudioko udal administrazioan aurkeztera; aitorpen hori Laudioko udal administrazioak emango duen eredu ofizialaren arabera egin beharko da eta kuota zehazteko beharrezko eta ezinbesteko diren zergaren zerrendako elementuak eta gainerako datuak izango ditu. Ordainketa aitorpena aurkezteko unean eta egintzan bertan, aldi berean, egin beharko da.

### ***14. Artikulua***

Zerga sortzen den egunetik zenbatzen hasita, aitorpena aurkeztu eta ondoriozko kuota ordaindu hurrengo epeetan egin beharko da:

- a) Bizidunen arteko egintzak direnean, epea 30 lanegunekoa izango da.
- b) Heriotzarengatik egintzak direnean, epea sei hilabetekoa izango da, urtebetera arte luzatu ahal izango delarik subjektu pasiboak eskatuta.

### ***15. Artikulua***

1. Aitorpenarekin batera, zergapetzea sortarazten duten egintzak edo kontratuak agerrarazten dituen agiria behar bezala kautotu eta benetakoturik aurkeztu beharko da.

2. Eskatu nahi diren salbuespenak edo hobariak ere agiri bidez bidezkotu beharko dira.

### ***16. Artikulua***

Laudioko Udal administrazioak pertsona interesatuei eskatu ahal izango die hogeita hamar eguneko epean, edo interesatuak eskaturik beste hamabost egun gehiagotan, zergaren likidazioa burutzeko beharrezkotzat hartzen dituzten beste agiri batzuk aurkezteko; udal administrazioak epe horien barruan egiten dituen agindeiei jaramonik egiten ez dietenek zerga urratzea egingo dute eta, beraz, zehapen egokiak izango dituzte, baldin eta agiri horiek aitorpena bidezkotzeko beharrezkoak badira. Agiri horiek interesatuak bere buruaren onerako azaldu dituen inguruabarrak bidezkotzeko baino aurkeztu ez badira, agindeia bete ez bada ere, likidazioa egingo da, azaldutako baina bidezkotu gabeko inguruabarrak kontutan hartu gabe.

### ***17. Artikulua***

13. artikuluan xedatutakoa gora-behera, hurrengoak ere beharturik daude subjektu pasiboen epe berdinetan Laudioko Udalari zerga egitatearen berri ematera:

a) Zerga ordenantza fiskal honen 7.1 artikuluko a) letrako kasuetan, baldin eta bizidunen artean negozio juridikorik egon bada, emalea edo ondasun eskubidea eratzen edo eskualdatzen duen pertsona.

b) Aipaturiko 7.1 artikulua b) letrako kasuetan, eskuratzailerak edo ondasun eskubidea eratzen edo eskualdatzen duen pertsona.

### **18. Artikulua**

Halaber, notarioak behartuta daude Laudioko Udalari, egutegiko hiruhileko bakoitzeko lehen hamabostaldi naturalaren barruan, egutegiko aurreko hiruhilekoan eurek baimendu dituzten agirien zerrenda edo indizea igortzera; notarioek baimenduriko agiri horietan, Laudioko udal mugarte honetan zerga honen zerga egitatea egin dela agerrarazten dituzten ekintzak, egintzak edo negozio juridikoak azalduko dira, azken borondateko egintzak salbu. Halaber, beharturik daude igortzera epe berean ekintza, egintza edo negozio juridiko berberak azaltzen dituzten agiri pribatuak, sinaduren ezagutza edo legitimotzat hartzeko aurkeztu izan zaizkionak. Artikulu honetan azaldutako guztia Lurralde Historikoko Tributu eta Zerga Foru Arau Nagusian ezarritako lankidetzarako betebeharraren kalterik gabe ezarri dela ulertzen da.

Notarioek Laudioko Udalari bidaliko dioten zerrendan edo aurkibidean jasota adierazi behar dute ondasun higiezinaren katastroko erreferentzia, erreferentzia hori eskualdatzearen objektu den higiezinarekin bat datorrenean.

Baimenduko dituzten dokumentuetan notarioek beren beregi oharraraziko diete bertaratutakoei zein eperen barruan behartuta dauden interesatuak Zerga honen aitortpena aurkezteko, baita ere, aitortpenen aurkezpen faltagatik zeintzuk izango diren aurre egin beharreko erantzukizunak.

### **19. Artikulua**

1. Laudioko Udalak 14. artikuluan esandako epeen barruan aitortu ez diren zerga egitateak egin direla jakiten badu, interesatuei aitortpen hori egiteko aginduko die, egin diren zerga urratzeen eta arau-hausteen eta kasu horietan bidezkoak diren zehapenen kalterik gabe.

2. Laudio udal administrazioak lehen ezarri diren agindeiak bideratzen baditu eta interesatuek aitortpena aurkezten ez badute, ofizioko espedientea zabalduko da eskuetan dituen datuekin, bidezkoa den likidazioa egingo da eta, hala denean, bidezkoak diren errekurtsioak aurkezteko eta azaltzeko epeak azalduko dira, egin diren zerga urratzeen eta kasu horretan bidezkoak diren zehapenen kalterik gabe.

## **X. XEDAPEN GEHIGARRIA**

9.b) artikulua xedatutakoaren ondorioetarako, eta Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga onesten dituen Foru Arauak indarrean dirauen bitartean, honako arauak bete behar dira:

#### **Lehena.-**

- a) Aldi baterako erabili eta fruituzko gozamenaren balioa ondasunen balioaren proportziozkotzat joko da, urtealdi bakoitzeko % 2, % 70 gainditu gabe. Aldi baterako erabili eta fruituzko gozamenaren balioa ondasunen balioaren zenbatekoa kalkulatzeko ez dira kontuan hartuko urtea baino zati txikiagoak, alabaina urtea baino epe laburragoa izan dezaketen erabili eta fruituzko gozamenak eskubidearen jatorri diren ondasunen % 2ko balioa izango dute.
- b) Bizi arteko erabili eta fruituzko gozamenetako balioa jatorri-ondasunen balio osoaren % 70 izango da gozameduna 20 urtetik beherakoa denean, eta adina gehitu ahala urtean % 1 gutxitu egingo da, balio osoaren % 10 muga duela.
- c) Pertsona Juridiko baten aldeko gozamina, mugagabea edo 30 urterako baino gehiagorako, zergari dagokionean baldintza suntsiarazleari lotutako jabetza osoko eskualdaketatzat hartuko da.

#### **Bigarrena.-**

Jabetza soilerako eskubidearen balioa gozamenaren balioaren eta ondasunen balio osoaren arteko kendura izango da. Bizi artekoak eta, aldi berean, aldi baterakoak diren gozamenetan jabetza soila baloratzeko aurreko lehenengo zenbakiaren araua ezarriko da, balio gutxien ematen diona.

#### **Hirugarrena.-**

Erabilera eta biztantzeko eskubide errealeen balioa aldi baterako eta bizi arteko gozamenen balorazioari dagozkion arauak ezarri ziren ondasunen balioaren % 75 ezartzearen ondoriozkoa izango da.

## **XI. XEDAPEN IRAGANKORRA**

Apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegintzazkoaz onartu zen Toki Erregimenaren arloan indarren dauden legezko xedapenen Testu Bategineko 350.1 artikuluko b) modalitatekoa izango da zergaren ezarpen aldia. Modalitate horretan Erakunde batek egindako konturako ordainketa guztiek ordenantza honetako 12. artikuluan xedatutakoa betez sortutako azken kitapena edo likidaziotiko kenketa eragingo dute.

## **XII. AZKEN XEDAPENA**

Hiri Lurren Balio Gehitzearen gaineko Zerga arautzen duen honako Ordenantza Fiskala, orain duen erredakzioaz, behin-behineko izaeraz onartu zen 2016ko urriaren 27 egunean eta behin betiko izaeraz, urte bereko abenduaren 21 egunean. Indarrean jarriko da 2017ko urtarrilaren 1 egunean eta indarrean jarraituko du aldatu edo indargabetzea onartuko den arte.

Alkate-udalburua,

Idazkaria,

Jon Iñaki Urkixo Orueta

M<sup>a</sup> Aranzazu Lili Salazar